

**Contigo Navarra - Zurekin Nafarroa**

# **Dokumentu politikoa**



**contigo  
zurekin**  
Navarra Nafarroa

Podemos Ahal Dugu Nafarroa, Nafarroako Ezker Batua eta Batzarrre alderdiek, pertsona independente taldearekin batera, proiektu bakarrean batzea erabaki dugu, Nafarroako politikaren dinamika biziberritu eta suspertzeko asmoz eta erkidegoko errealitate sozialarekin duen lotura sustatuko dugu. Pertsonen bizitza benetan aldatzen lagundu nahi dugu. Horretarako eta alderdi go-goeta komun batetik abiatuta, gure jarduera politikoari eman nahi diogun orientazioa helarazi nahi diogu gizarteari, alderdiekiko atxikimendurik ez izateak ematen digun askatasunetik eta gure erkidegoa gizarte hobea bilakatzeko konpromisotik abiatuta.

Une honetan, estatuan, oro har, eta European ere, gorakada erreakzionario eta inboluzionista baten aurrean gaude, eta horrek arriskuan jartzen ditu aurreko belaunaldiei konkistatzea hainbeste kostatu zitzaien eskubideak eta askatasunak. Ezkerretatik, aliantza politiko eta sozialak eraikitzearen aldeko apustua egin behar dugu, tokikotik eta autonomiatik gure herriaren gehiengo sozialaren eskubideak eta interesak defendatu eta, aldi berean, sakondu eta zabaldu nahi dituen bokatuzio eraldatzaileko fronte zabal bat eratzen lagunduko dutenak.

Proiektu hau bultzatu genuen indar politiko eta pertsonak funtsezkoak izan ginen 2015ean gertatu zen Nafarroako aldaketa politikoa posible izan zedin. Gure ustez, aldaketa hori indartu eta sakondu egin behar da. Ildo horretan, proiektu hau hainbat helburu eta erronkarekin sortu da:

1. Beharrezkoa da ezker berdearen, feministaren, errepublikanoaren eta eraldatzailearen **elkargune den espazio politiko plurala indartzea**. Gizartearen zati horri dagokion ahotsa eta garrantzia eman behar zaizkio, berdintasunarekin, sakontze demokratikoarekin, pertsonen askatasun eta eskubideekin, elkartasunarekin eta gure planetarekiko errespetuarekin benetan konprometituta dagoen gizarteari, hain zuzen; betiere, orientazio ekosozial argia izanik. Eremu hori politikoki ahuldu izan denean, legegintzaldi honetan esaterako, gure gizarteak ez du behar den erritmoan egiten aurrera, handiagoa baita aurre egin beharreko erronken erritmoa.
2. Horretarako, garrantzitsua iruditzen zaigu **ezker eraldatzaileko talde politikoekin** (Podemoseko, Ezker Batuko eta Batzarreko) eta gure komunitatea eraldatzeko balio progresistetatik abiatuta, gurekin bat egin nahi duten pertsona guztiekin unitate-proiektu baten alde egitea. Hori dela eta, hitz ematen dugu unitate hori lortze aldera, ahalik eta konpromiso, erantzukizun eta leialtasun handienari eutsiko diogula, eta baita etorkizunean mantentzeko ere, **epe luzeko proiektu gisa**, epe laburreko hauteskunde-larrialdietatik haratago, eta betiere gaur sortu dugun espazio pluralean izanen diren sentsibilitateak errespetatuz.

3. Beste indar eta espazio progresista batzuekin lankidetzan aritzeko bokazioa adierazten dugu, **gehiengo zabalak eraikitze**ko, gure nafar gizartea eta erakundeak eraldatze-agertoki horretara bideratzeko gai izango direnak; une honetan indar kontserbadoreek eta eskuin muturrekoek duten erregresio-arriskua saihestuz. Era berean, lankidetzaren eta koordinazio estuan jardungo dugu Espainia osoko gure indar politiko kideekin, arrakasta aukerak zabaltzeko aldaketa politiko eta sozialean sakontzeko bide horretan.
4. Guztion artean, **herritarren parte-hartze handiko** dinamika baten bidez, XXI. menderako gizarte-aldaketarako agenda bat eraiki nahi dugu, proposamen berriak dituenak. Era berean, gogoetarekin eta eztabaidarekin dugun konpromisoa azpimarratu nahi dugu, dogmatismoetatik eta interes partikularretatik urrun. Eta herritarren eguneroko bizitza hobetzeko gai diren proposamen praktiko eta bidegarriak mahai gainean jartzeko asmoa berretsi nahi dugu.
5. Nafarroa osoarentzat, existitzen diren identitateen aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako **bizikidetzaren ereduaren** alde egiten dugu, bai alderdi politikoan, bai kulturean, eta, beraz, pentsamendu, ideia eta iritzien askatasuna eta haren zilegizko

adierazpen demokratikoa defendatzeko konpromisoa hartzen dugu. Identitate horiek (nafarra / euskalduna / espainiarra / europarra...) gizartea eraldatzeko proiektu aurrerakoi bat eraikitzeko bidean elkarrekin bizi daitezkeela eta elkarri lagundu diezaioketela uste dugu, elkarrizketatik abiatuta. Era berean, adierazi nahi dugu gaztelania eta euskara Nafarroako berezko hizkuntzak direla, eta horiek zaindu eta sustatu egin behar ditugula, betiere askatasunetik, eskubideen bermetik eta bizikidetzatik.

6. Ildo beretik, uste dugu Nafarroako autogobernuaren garapena bide egokia dela guztion bizikidetzan aurrera egiteko. **Autogobernuaren aldeko apustua** da, eta ez da identitate-baieztapen batean oinarritzen, baizik eta bateratze-baieztapen batean, sakontze demokratikorako konpromisoan eta herritarren parte-hartzea hobetzeko bide gisa erabaki politikoak deszentralizatzeko konpromisoan. Horrez gain, kudeaketa politikorako modu eraginkorrenak eraikitzeko metodoaren aldeko apustua ere bada, pertsonen benetako arazoei konponbide onenak aurkitzeko gai direnak. Autogobernua Nafarroa hobe baterako, estatu osoarekin, Europarekin eta planetarekin solidarioa.
7. Ildo beretik, udalerrikotasuna, tokiko eremua, landa-eremua nahiz hiri-eremua, **herritarrengandik hurbilen dagoen eremua** da,

eta oso egokia da guztien artean irtenbideak proposatu, eztabai-  
datu eta emateko, interes berezia duten zatiketak alde batera ut-  
zita. Horregatik, batzen gaituenaren ildotik, talde politikoez  
independentziagatik foru-erakundeetan zuzeneko solaskiderik  
ez duten talde, ordezkari publiko eta toki-erakundeen eskaera eta  
aldarrikapen guztiei bide eman eta erantzunak emateko konpro-  
misoa dugu. Lan proaktibo baten bidez, Nafarroan, hirikoan zein  
landakoan, konponbide bateratuak planteatu, eta erakundeetara  
eraman nahi ditugu, sumatzen dugun klientelismoa baztertuta.

8. Gure ekintza politikoaren ardatz nagusiak honako hauek izanen  
dira: **berdintasuna eta gizarte-justizia** lortzeko nahia, langi-  
le-mugimenduaren tradizioaren ohiko aldarrikapenak; bizitzaren  
arloan guztietan gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdin-  
tasuna lortzen saiatzea, mugimendu feministak eskatu bezala;  
gure planetarekiko errespetu sakona, mugimendu ekologistak  
eskatu moduan; eta pertsona guztiak eskubide osoko eta duinta-  
sun osoko herritar gisa aintzat hartzeko borroka, gizarte-eskubi-  
deen aldeko mugimenduk aldarrikatzen duen gisa. Gure ustez,  
soilik gizarte-mugimendu horien oinordetza onena errespetatuz  
eta eguneratuz, eta planteatzen dizkiguten erronkei aurre egi-  
nez egin ahalko dugu aurrera gizarte hobea lortzeko bidean. Hori  
lortzeko modurik onena ezkerak erakunde sindikalekin, emaku-  
me-elkarteekin, talde ekologistekin edo pertsona guztien bene-

tako integrazioaren alde lan egiten duten gizarte-erakundeekin elkarrizketa eta eztabaida konstruktiboa sendotzea izango da.

9. Berdintasunarekiko, gizarte-justiziarekiko eta pertsona guztiek beren bizitza egokien iruditzen zaien moduan bideratzeko askatasunarekiko konpromisoak, gizarte-desberdintasunak murrizteko helburua lehenesten du gure ekintza politikoan. Horretarako, gure erkidegoko pertsona guztientzako bizi-baldintza duinak lortuko dituen **garapen-eredu jasangarri eta inklusiboa** sustatzeko lidergo publikoa planteatzen dugu. Berziki, funtsezkotzat jotzen dugu lan duina ziurtatzea, bizitza-proiektu egonkorak garatzeko eta bizitza pertsonalarekin uztartzea errazteko. Halaber, uste dugu botere publikoek gai izan behar dutela Nafarroako pertsona guztiei **etxebizitza duina izateko eskubide** eraginkorra bermatzeko, gazteen emantzipazioa erraztuz. Horrekin batera, **desberdintasunaren, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokarekin** konprometitzen gara, pandemiaren eraginez, areagotu egin baitira berriro. Gure ustez, gure helburua den Ongizate-Estatu eredu berri horrek, pobreziaren kudeaketatik harago joan behar du, berau desagerrarazteko. Eredu berri honek, statu quo mantentzeko helburu kontserbadorea gainditu egin behar du, eta gizarte-premia berriei erantzuna eman behar die, aberastasuna birbanatzeko eta gizarte-arrisku berrien aurrean



babesteko bide berriak emanez, pertsona bakoitzaren egoera-  
ra egokitutako erantzunak eskainiz eta bere arazoei askatasu-  
nez aurre egiteko modua aukeratzeko gaitasuna errespetatuz.

- 10. Gazteekin elkarren ondoan lan egiten dugu.** Gaur egun-  
go gazteria krisi egoeran bizi izan da beti. Ez dute ezagutzen  
lan-prekarietatea eta emantzipatzeko ezintasuna ez den bes-  
te errealitaterik. Argi daukagu beharrezkoa dela haiei entzutea  
eta haiekin lankidetzan aritzea, bizitza hobetzeko eta etorkizun  
duina bermatzeko beren eskaerak eta politika publiko daitezen.
- 11.** Zerbitzu Publikoekin konprometituta gaude, osasunarekin,  
hezkuntzarekin eta gizarte-zerbitzuekin bereziki. Gure ustez,  
gizaki guztien aukera berdintasunaren eta duintasunaren al-  
deko edozein proposamen politikorentzat lehentasuna izan  
behar da **zerbitzu publiko horiek indartzea**. Horregatik, eta  
pandemiak zerbitzu horien erabiltzaileengan eta profesiona-  
lengan izan duen eragin handiaz jabeturik, uste dugu une ego-  
kia dela eskura dituzten baliabideak indartzeko apustu sendoa  
egiteko, eta, hala, erreferentziako hezkuntza, osasuna eta gi-  
zarte-zerbitzuak sustatzeko, horietaz harro senti gaitezen eta  
Nafarroako bizi-kalitatearen bereizgarri izaten jarrai dezaten.



- 12.** Gure ustez, ezinbestekoa da interes orokorrari hainbesteko ekarpena egiten ari zaizkion beste latitude batzuetako herritar berrien gizarteratzea ziurtatzea, gure erkidegoaren gizarte-kohesioan aurrera egiteko. Horretarako, lehenik eta behin, etorkin askoren bizi eta lan-baldintzak hobetu behar dira, azken bi krisien ondorioak gehien jasan dituztenak baitira. Horrela, **justiziatik, aukera-berdintasunetik, desberdintasunen errespetutik, tolerantziatik eta bizikidetzatik abiatuta, gizarte-integrazio eredu bat eraiki nahi dugu.**
- 13.** Gure ustez, globalizazioaren, iraultza teknologikoaren eta desarautze neoliberalaren ondorioz lan-merkatuan gertatu diren aldaketek langileak babesteko mekanismo berriak behar dituzte, bai eta egungo egoerara egokitutako lan-erregulazioa ere. Gure Erkidegoan lan-baldintza kaskarrenak jasaten ari diren sektoreen eskubideak eta helburuak defendatzeko konpromisoa hartzen dugu, eta, horretarako, gizarte-eragile guztiekin jarriko gara harremanetan. Eta konpromisoa hartzen dugu **ekonomia soziala eta solidarioa sustatzeko** eta demokrazia eta langileek enpresetan duten parte hartzea garatzeko. Horretarako, hainbat formula proposatuko dugu, garapen ekonomikoaren eredua zentzu horretan eraldatzeko bide gisa

- 14. Emakumeen eta gizonen arteko erabateko berdintasunarekiko** konpromisoak prozesu historiko horretan gertatzen den edozein atzerakada salatzea garrantzitsua; esate baterako, egungo krisian gertatu dena, emakumeen enpleguetan eragin handiagoa izan duena, edo, abortua edo indarkeria matxista bezalako gaietan, eskuin-muturreko proposamenek eragindakoak. Eta konpromisoa hartzen dugu genero-berdintasunean, parte-hartze sozial eta politikoa, lan-merkatuan, zainketen erantzukizunen banaketan, eta, azken batean, bizitzaren eremu guztietan aurrera egin dezagun, aldaketa-elementu berriak bilatzeko. Era berean, LGBTBI+ eskubideen borrokaren aldeko konpromisoa, eta, beraz, edozein sexu, genero edo beste edozein motatako diskriminazioa ezabatzeko konpromisoa azpimarratu nahi dugu.
- 15.** Planetarekiko errespetua populazioaren sektore zabaletara hedatzen da, transbertsalitate handiekin eta erradikaltasun berriekin lotzen da eta lehentasun berriak eta larrialdi berriak planteatzen ditu. **Ingurumena zaintzera bideratutako benetako politika publikoen** alde egiten dugu, eta ez soilik greenwashing marketin politikoko jarduera gisa, interes ekonomikoko talde handiei ezer eman gabe. Eta uste dugu Nafarroak ere egin dezakeela ekarpen hori. Horretarako, klima-aldaketaren aurrean gizarte osoaren konpromiso irmoa behar dugu, baita

pertsona guztientzako bizi ona, bizi-kalitate ona lortzera bideratutako eredu ekonomikoaren eraldaketa ere, jasangarritasunean eta ingurumenarekiko errespetuan oinarritutakoa berau.

- 16.** Azkenik, eta are gehiago une honetan, Nafarroako gizartearen ezaugarri izan den izaera bakezale eta solidarioa azpimarratu eta defendatu nahi dugu. Alde horretatik, **bakearen eta giza eskubideen balioak defendatzeko konpromisoa** berreszten dugu, edozein jarrera belizistari edo giza eskubideen aurkako erasoei aurre egiteko, edozein tokitatik etorrira ere. Beste herri batzuek edozein alorretan izan ditzaketen zailtasunekin elkartasuna adierazten duen Nafarroa baten alde egiten dugu.



**contjgo  
zurekin**

Navarra Nafarroa